

GRADU AMAIERAKO LANA

Irakaskuntza Gida. Eranskina (2019-2020 ikasturtea)

GRALen tutoretza

Birtualki egingo da, ikasleek posta elektronikoaren bidez bidaltzen dituzten ondoz ondoko zirriborroak berrikusiz eta tutorea ikasleekin harremanetan jarritz posta elektronikoz, telefonoz edo tutoretza birtualetarako tresnak erabiliz.

GRALen defentsak

2020ko martxoaren 13ko Erabakian oinarrituta, UPV/EHUko Graduko Batzordearena, COVID-19 koronabirusaren epidemia geldiarazteko indartze neurrien eraginpean dauden gradu amaierako lanen defentsari buruzkoa, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak mantendu egingo ditu Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduetako GRALen gordailurako eta defentsarako aurreikusita zeuden datak, hala ohiko deialdian nola ezohikoan.

GRALen defentsa bideokonferentzia bidez egingo da, *Blackboard collaborate* delako tresnaren bitartez, zeinak ikasleen eta GRALeko epaimahaikideen arteko harremana ahalbidetzen duen.

Lanaren gordailua egiteko epea bukatzen denean, jakinaraziko zaie ikasleei eta GRALeko epaimahairen batean parte hartu behar duten irakasleei nola eta noiz konektatu beharko diren dagokien saiora.